



Bergarako
Udala

LANKIDETZA-HITZARMENA BERGARAKO UDALAREN ETA BEDELKAR ELKARTEAREN ARTEKOA

Bergaran, 2023ko Irailaren 26an

BILDURIK

Alde batetik, Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko behin behineko Alkatea, Bergarako Udalaren izenean; eta M^a Concepcion Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin. Azken honek, halaber, ekintza hau egiaztatuko du.

Bestetik, Nerea Urbietta Barrutia, BEDELKAR elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean.

Nerea Urbietta Barrutia andreak zinpean alkatearen aurrean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku-kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta.

Beraz, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- Bergarako Udalak 2023ko irailaren 21eko dekretu baten bitartez erabaki zuen BEDELKAR elkarteari diru-laguntza bat ematea 2023an zehar herrian merkataritzako jarduera bultzatu eta udalerria erakargarri, dinamiko eta atsegina egiteko asmoz aurkeztu duen ekintzen programa aurrera eramateko, "Bergara Bizi" ekimenaren barne, bai eta alde bien betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

HITZARTZEN DUTE

Lehenengoa: Helburua

Hitzarmen honen helburua da Bergarako Udalaren eta Bedelkar elkartearen arteko "lankidetzatza" arautzea, Bergaran merkataritzako jarduera bultzatu eta Bergarako udalerria erakargarri, dinamiko eta atsegina egiteko asmoz herrian aurrera eramango diren "Bergara Bizi" ekimenaren barne aurtengo ekintza bereziak finantzatzeko Udalak elkarte horri eman dion 15.000 euroko diru-laguntzari dagokionean.



Bigarrena: Alde bien betebeharrak

1.- BEDELKAR elkarteak berak aurkeztu eta diruz lagundu den proiektuan deskribatutako ekintzak burutuko ditu 2023an. Ekintzak hitzarmen honi erantsitako dokumentuan agertzen dira.

Gainera honako konpromisoak ere hartzen ditu:

- Udalak egingo dituen ikuskarpenak ez oztopatzea.
- Jasotako diru-laguntzaren erabilerari buruzko agiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).
- Diruz lagundutako jarduera egiteko behar diren baimen guztiak lortzea.
- Jardueren ondorioz beste batzuei eragindako kalteak ordaintzea.

2.- Udalaren konpromisoak:

- BEDELKAR elkarteak aurkeztutako proiektua garatu ahal izateko, Udalak honako diru-laguntza emango dio: 15.000 euro.

Diru-laguntzaren 1. zatia (diru-laguntzaren % 60) ordainduko da BEDELKAR elkarteak Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatu ondoren. Horretarako hitzarmen hau sinatzean baimena ematen dio udalari egiaztapenak lortzeko.

Bigarren zatia jasotzeko (diru-laguntzaren % 40), ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu BEDELKAR elkarteak 2024ko martxoaren 30a baino lehen:

- Diru-laguntza "ordaintzeko" eskaera-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketaren memoria bat; bertan, honako hauek jaso behar dira:
 - Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan.





Bergarako
Udala

- Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean.
- Lortutako helburuen justifikazioa.
- Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.

c) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala... balego).
- Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia...).
- Fakturatutako gastuaren kontzeptua edo pareko dokumentuan jasotakoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— zenbatekoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— jaulkipen-data.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— ordainketa-data.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenaz).

f) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio).

g) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Hirugarrena.- Bergarako Udalak BEDELKAR elkarteari emango dion 15.000 euroko diru-laguntza horren barne daude egitaraua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak, besteak beste ondorengoak:

- Elkartek kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ekitaldietarako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoak diren elementu guztiak, ez baditu udalak bere gain hartu.
- Ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoak diren erantzukizun zibileko polizak.
- Ekitaldiak antolatu eta aurrera eramateak eragindako gastu eta kostu guztiak.
- Sortu daitekeen beste edozein gestio edo gastu



Laugarrena.- BEDELKAR elkarteak ekintzen gainean egindako publizitatean (kartelak, esku-programak...) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batean, eta garbi utzita Bergarako Udala laguntzailea dela.

Bosgarrena.- Hitzarmen honetako bi aldeek beraien harreman-sarea baliatuko dute ekitaldia iragartzeko eta zabaltzeko, gonbidatuak erakartzeko eta komunikabideak deitzeko. Ekintzaren berri emateko, alde biek, data bat adostuko dute eta komunikazioa egiteko era zehaztu ere ekintzaren berri emateko.

Seigarrena.- Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua emandako diru-ekarpena baino txikiagoa balitz, Udalak zati bat itzultzea eskatu ahal izango dio.

Txosten ekonomiko horretan, BEDELKAR elkarteak ekitaldietarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin BEDELKAR elkarteak gastua baino diru-sarrera handiagoa lortuko balu, Udalak eskubidea izango du era berean diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen berririk egingo.

Udalak BEDELKAR elkarteari egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru-kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Zazpigarrena.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.


Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan.

Zortzigarrena.- Ezingo da aldaketarik egin diruz lagundutako programan, ez eta bertan aurreikusten den denbora baino gehiago erabili ere, aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu.

Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Bederatzigarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.





Bergarako
Udala

Hamargarrena. - Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian hauek aplikatuko dira: Diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Bergarako aurrekontuetako Udal Araua.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan eragindako kalteen erantzule BEDELKAR elkarteak bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

Hamabigarrena.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunean bertan sartuko da indarrean eta indarrean egongo da programa bukatu eta memoria aurkeztu eta udalak ontzat eman eta askoz jota 2024ko martxoaren 30era arte.

Hamahirugarrena.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharrak edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.

IDAZKARIA

M^a Concepción Ugalde

ALKATEA

Ainhoa Lete Zabaleta

BEDELKAR elkarteak

Nerea Urbieta Barrutia



